

Bilbon, 2003.eko abenduaren 19an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Miren Azkarate (goizez),
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Jose Luis Lizundia,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
eta Piarres Xarritton,
euskaltzainak.
Pello Telleria, idazkariordea, zegozkion
gaietan.

Ezin etorriak: Jose Antonio Arana-Mar-
tijarena, osasunagatik. Miren Azkarate-
na, ahala P. Salabururi emanez; Juan
Mari Lekuonarena, ahala J. Haritschelha-
rri utziz.

Batzarra goizeko 10,20an hasi da Bilbo-
ko egoitzako batzar aretoan, ezkerreko
zutabearen ageri diren euskaltzainak eta
bertan direla.

1. Akta onartzea

Iraileko batzarraren akta, A. Iñigoren eta
A. Urrutiaren ohar batzuekin, onartu da.

2. Onomastika: Nafarroa Behereko 6.
eskualdeko – *Agaramont*-eko – herri-ize-
nak, aurkako oharrak jaso gabe, onartu
dira.

3. Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua: *arriskatu-askatu* zerrenda onartua banatu da.

Aurpegiara-azalkeria zerrenda oharrak gabea onartu da.

Ondoren, *askatzaile-atomatu* zerrendan egindako *askenazi-atoi* arteko oharrak
aztertu dira.

Atomika-aurpegia zerrendako hitz ohardunak aztertzen hasi eta *atomika-atril*
arteko hitzak aztertu dira.

4. Hiztegi Batuko bigarren itzulirako oharrak egiteko prozedura

Hiztegi Batuko bigarren itzulia arintzeko prozedura-testua banatu da.

5. Jagon Sailaren proposamena. Jagon Sailak prestaturiko eta, aholkularien
oharrak jaso ondoren, osaturiko «Euskalkien erabileraz irakaskuntzan, komunikabide-
etan eta Administrazioan» proposamena banatu da. Euskaltzainek beren oharrak urta-
rrilaren 20rako aurkeztu behar dituzte.

6. Eskuartekoak

6.1. Diruzainaren dimisioa

J.A. Arana diruzainaren dimisioa azaldu du J. Haritschelharrek, osasun-arrazoia
direla medio erabakia. Hutsune horretaz arautegiak dioena irakurri eta ordezkioa urta-
rrilean hautatu beharko dela iragarri du.

6.2. Herririk herri

«Euskal Herritik Europara» lemapean Arratian martxoaren 22, 23 eta 24an egiteko diren kultur ekitaldien programa, Euskaltzaindira igorria, banatu da.

6.3. BBK-Euskaltzaindia Literatur sariak

J. Haritschelharrek Euskaltzaindiak aurten ere Bilbao-Bizkaia Kutzarekin antolatutuen literatur sarien berri eman du. Saridunak ondokoak izan dira: Mikel Zubeldia, Txomin Agirre eleberri sarian «Manikien galeria» lanarekin; Pablo Barrio, Toribio Alzaga teatro sarian «Ama, hor al zaude?» antzerkiarekin; Luis Miguel Garde, Felipe Arrese-Beitia poesia sarian, «Oihan nabarra» lanagatik, eta Mateo Leonet (Patziku Peururena ezizenez ezagunagoa), Mikel Zarate entseiu sarian, «Harrizko pareta erdiurra tuak» saioagatik. Sariak abenduaren 12an eman ziren Bilbon Euskaltzaindiaren egoitzan, jendaurreko ospakizunean, bertan Akademiaren, BBKren eta epaimahaien ordezkariak presente izanik.

6.4. Gipuzkoako Diputazioaren eskaria

Xabier Huizi Belamendiak, Gipuzkoako Diputazioaren Euskararen Normalkuntzarako zuzendari nagusiaren eskari-eskutitza banatu eta irakurri da, euskaraz *Garapen Eramangarrirako Departamentua* erdarazko *Departamento para el Desarrollo Sostenible*-ren itzulpen egokia ote den galdetuz. I. Sarasola, H. Knörr, A. Eguzkitza, X. Kintana, P. Salaburu, A. Iñigo eta J.L. Lizundia euskaltzainak mintzatu ondoren, irizpena, datu gehiago bildu ondoren, hurrengo bileran erabakitzeke utzi da. Honi buruzko oharrak P. Telleria eta J.L. Lizundiari helaraztea erabaki da.

6.5. Hilberri-txostenak

2003an zendu diren bi euskaltzainen hil-berri txostenak urtarrilaren 30an Donostian ageriko bilkuran egitea proposatu eta onartu da. J.M. Satrustegirena A. Iñigok prestatuko du. Rudolf de Rijkena, berriz, P. Salaburuk.

7. Azken ordukoa

Lehendakariaren harrera ekitaldirako gonbita.

Euskaltzaindiak Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren gonbita jaso du, abenduaren 19an, arratsaldeko 6etan Gasteizen gizarte, kultur, enpresa, kirol ordezkari entzate egin-go duen harrera-ekitaldira joateko. Hara euskaltzainburuordea eta idazkaria joango direla jakinarazi da.

8. Resu Orbe eta Lutxi Alberdiren omenaldia

Bilkura amaitzean, Euskaltzain eta egoitzako langileak bertan zirela, J. Haritschelhar euskaltzainburuak aspaldiko 25 urteotan Akademiaren langile diren Resu Orbe eta Lutxi Alberdi andreei Euskaltzaindiaren zilarrezko domina bana eman die, bakoitzak bere arloan erakundearen alde zintzoki eta trebeki beteriko lan isila baina beharrezkoa gorai patuz. Ekitaldia gutzien txalo-zartekin burutu da.

Batzarra 2.20an bukatu da.

Irteeran Rikardo Badiola argitalpen eragileak eta Jon Artza argitalpen banaketa-zerbitzuburuak euskaltzainei ondoko liburuen ale bana eman diete:

1. *Juan Pablo Ullibarriren (1722-1847) hiztegia*. Patxi Galé-k paratua.
2. *Udako Euskal Unibertsitatearen Historia*. Mikel Aizpuruk egina.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

Xabier Kintana
Idazkaria